Euzkadi

¿GIZONA ALA EMAKUMEA?

¿ZEIN DA KEMENTSUAGUA?

I

¡NEKE ATSEKABETSUA!

¡Zoriona! Ona emen, gizonaren biotz gosetia asetuten daben janaria. Zoriona da aldi onetan guziok bilaututen doguna; berak gerganatzen dogunian irri-barre gozua loratzen da geure ezpañetan; geure barruko poz alaitsua itz samurrez agertzen dogu, ta geure izate guztia atsegintasunez puztuten da.

Baña... zoriona gauza urria dala ludi onetan ¿nok ez daki, ene irakurle maitia? Zorion-billa gabiltzala sarri be sarritan zoritxar azpian jauxten gara eta, zugatzetik jurratzen dan abarrak lez, geure biotzak karrask mintsua ataraten dau.

Sortzen dan egunetik geyan gizonak bere biotzian josita dakarren ezaugarri *horitzurra* da. Zoritxarra, nekia, atsekabia, naigabia... ona emen Adama ta Ebe gure lenengo gurasuak ludian erain eben pekatuzko aziak emoten dabezan emaitz garratzak. Lana, izardia ta nekia agindu eutsezan Jaungoikuak gure lenengo gurasuai, pekatu arimia zikindu ebenian, eta guk, ren semiok, zoritxarra janaz, igazi biar dogu geure bizia. ¡Ze egia idarti deunak diñoana: "Adama'ren seniok, amaren sabeletik urtetan dogunetik, guztion ama dan lurraren magalian sartzen gaituezan artian, buztarri azkunaren azpian nekatuta gabiltz"! (1). Buztarri ori *zoritxarra* da.

Zoritxar azpian bizi biar gara, beraz, gizon guztiok: gizaseme ta emakume, zar ta gazte, txiki ta aundi, aberats ta biartsu; eta zoritxarpian biziten biartuta garian-ezkero, beran adorez ta kemenez eramaten alegindu biar gara. Baña, asko ta askok zoritxarraren ikutua nabaitziaz batera, zoratuta lez, eriotzari didarka, asten dira; beste asko, biotzeko garraztasuna euren inguruan erañaz, gau ta egun didarka ta intzirika oyuka ta orroka igazten dabe; beste asko ilda lez, geratzen dira; eta, azkenez, baten batzuk, euren biotz mingortasunez garraztua eskuetan artu eta antxiñakuak lez "gizon izan zaitez" esanaz, biotz ori estutu daben atsekabiagandik garbitu ta utsitu ta zoritxarrari aurpegia emoten dautse: zoritxarra adoretsu ta kementsu eramaten dabe.

Baña, zoritxarra eroapenez eramaten adoretsuagua, kementsuagua ¿nor ete da: gizasemea ala emakumea? Emakumea, aurki, neure ustez.

II

MAITASUNA

Gizonaren bizitza guztia maitasunaren inguruan dabil. Atsegin yakuna maitatu esiten dogu; atsekabetsua yakuna gorrotatu egiten dogu. Berangartik iñuan Platon, gizon jakitunak: "Gizonai bakia, itxasuai baretasuna, aiziai ixiltasuna, naigabeari oea ta lua emoten dautsena *maitasuna* da" (2). Maitatzeko ala—iñuan Veuillot, gizon argiak—moriontsua izateko ala da; maitasuna baizen gauza eder, atsegintsu, aundi, gogor, gozorik ez da (3). Izan be, poza, gozotasuna, benetako atsegintasuna, biotzaren benetako zoriona... maitasunian aurkitzen da; beraugaitik maitatzia gauza gozua, ona, leuna, zoragarria da.

Eta gizonaren bizitza ludi onetan maitasun-inguruan ba-dabil, maitasuna zoriona ba-da... zoritxar guztien sustraia, be, maitasunian idoro biar dogu. Berau dala-ta adiskidia benetan maite dabenak, bere gaitz ta zoritxarretan naigabetu ta atsekabetu egiten da. Geure izen ona lentzen ba-dauskube, min artzen dogu, izen on ori maite-maite dogun zerbait dalako. Gizonaren zoritxar-sustraia, beraz, maitasunian dago eta maitasunian estaltzen da baita be *adoria, ala, kemena, biotz-indarra... bizi-bizi, bero-bero, gartsu ta autsu.* "Zeru ta lurren, Jaungoiko ta gizonen bien tartian dan utsune ikaragarria, biotzak, maitasunak, baño bestek ez lei bete. Gauza guztien asiera, jarraya ta amaya, maitasuna da; maitasun daukanak bizia dauka; maitasuna dabenk bere burua opalduten dau; maitasuna daukana asetu egiten da; azta edo pisuaren alderdi batian imiñiriko maitasun-tanta batek, beste alderdian ludi osua ezartzen ba-da be, ekaitz izugarriak, bedar izpia aizea-ziar lez, indarrez beraganatuko dau", diño Lakordaire izlari ospetsuak. (Van Tricht).

Egiz esan geinke, ba, benetako maitasuna guztialduna dala eta zoritxarrik aundiena, sakonena, luziena, iraunkorrena, kemenez, adorez, eroapen ikusgarriz eramateko indar barrutarra daukala.

Beraz, irakurle maitia, zoritxar aldia eroapenez eroateko, benetako maitasuna biar da; ta, jakiña, maitasun sutsuguak kemen adoretsuaguaz eramango dau zoritxar aldia.

III

AMA GAUZARIK MAITATIENA LUDIAN

¿Maitasun-garra gizaseme ala emakumiaren biotz-suteyan aurkitzen da beroago, sutsuago, gartsuago? Emakumiarenian, aurki.

Emakumia ama izaterako jayo da. ¡Ama! Itz gozo, bigun, samur, eztitsu, maitekor, zoragarriagorik ¿num? Ama—diño idazle batek—bere laztan garbiz, biritza onetako garrastasunetan ezti-tanta bat iminteko emon dausku Jaungoikuak; geure begitxuak, mundu onetako etorkizun baltza ikusteko, zabaltzen doguzanian, bere maitasunegoz etorkizun baltz ori estali dagian, Jauna'k seaska edo kuma ondora bidaldu dausku (Castelar-*Salve expl.*, por Man. Vidal Rodríguez).

Ama semiarentzat guztia da; bizia, maitasuna, poza, alaitasuna, janaria, biotzeko atalik samurrena, etorkizun ta itxaropena, adiskiderik kutunena; gaixorik ba-da semia, antxe dago ama, aingeru bat lez, bere biotzeko maitasun-eztiz miñak ta nekeak leunda a eztituaz; antxe dago ama oe-adarrian gau ta egun.

"Amaren maitasuna—esaten da, ta egiz—maitasun au norberen barruan auznar egiteko egokiagua da, itzaz ta idazkiz azaltzeko, baño. Gizon-idazkorrak berau azaltzeko indarrik ez dauko."

Ikusi egizu, ene irakurlia, etxe zar bateko gela illunian ta bere ocan etzanda amabortzi urte dun gaztia. Bere gorputza, zortzi urte bete ebazanatik ats nazkagarria jauxten daben zauri zikiña da; nabaitzen dabezan min garratzak ayena baten, oyu negargarri baten dakarro. Bere ama maite alargunari, biotz eritik, odol-malko itunak darioz; au ta gutti be, emakumetxu maitatia, gau ta egun, ille, ta urte, bere ezpañak eztiz gozotuta dabezala, antxe dago, oe-buruan, bere seme kutunari maitasum-edari esnetsua, bere biotzeko urrezko onetan eskintzen. Esatia da bat; egitia beste bat; amatasuna, maitasun gori ta kixkala da ta *maitasun gori-kixkala adore ta kemen-iturburua.*

Orra or, azkenez, zarpi anai makabeotarren ama zintzo ta jaunmaitatia. Sei seme, ikiduz, bere begien aurrian il dautzez. Ama dan emakumiarentzat, zarpitik sei seme sigortau ta, martirio gogorrez, ilten ikustia ¿zer ete-da? ¿Zelan ete-zan ainbeste arantza zorrotzez zauritatuko biotz amatarra? Seme bat geratzen yakon biziaz; gaztiena, bere biotzeko atalik samurrena, kutunena. Deitu eutsan, ba, amari Antioko, errege zitalak eta esan eutsan:

—Egiz diñotzut: zeure semetxu orrek, judarren legiak galazoten dautsuezan aragiak jaten ba-dauz, soriontsuak egingo zaituedaz biok.

Deitu eutsan amak semiari, ta itz samur ta beroz esan eutsan:

—Ene semea: nitzaz errukitu: bederatzi illabetian neure sabelian ekarri zindudan; neure bularreko esnez iru urtian sendotu zindudan eta gaur-arteko azia, be, neuk emon dautzut; jazo egizuz zeure begiok zerura, lurrera ta baztar guztietara, eta jakin egizu gauza guztiok Jaungoikuak ezerreetik egin dabezala. Gizon guztiok, be. Bera'k egiñak gara; ez ikaratu, ba, ta emon zeure bizia anayakin batera beti zeruan bizi zaitian.

Amarentzat semiaren eriotza gauzarik mingarriena da. Eta orraitiño, ama makabeotarrak bizia Goiko-Juana'gaitik emon dayala diñotso bere semiari. Semia izkiluz ilten kusteko adoria, kemena dauko emakumeak. ¿Nun edan ete-dau adore-ardao sendua? Maitasunian, amatasunian; semia maite-maite dau eta maite dabelao eta beti goizeruetan jaun-maitasunetan amaibako zoriona edan da edan ikusi gura dabelako, ludi onetako zoritzarrez josiriko bizia launa'ri eskiñi ckyola gura dau.

Maitasuna da, ba, ene irakurle maitia, adore ta kemen-iturburua; ta ama, ludian izan daikenik gauzarik maitatiena dalako, emakumia, gizasemea baño adoretsuagua dala zoritxarraldian, esan gegike, noski.

GABILONDO'TAR JULE.

Mungia (Bizkaia).

(1) Eccl. XI-1—Van Tricht: *La Cruz y El Calvario.*
(2) Van Tricht: *La Ilusión.*
(3) Toki bardiñian.

ERIJETATIK

LEZO

EUSKELTZALEAI

"Euskeltzaleen Deia" deritzaion aldizkingi edo errebista jayo berria, erri ontako baskideai banatzeko oraintxe jaso det. "Euskaltzaleak" noia sortu ziran eta zer egin duten garbi erakusten da bere orrietan. Beraz lenago baskide diranak, ezertxo ordaindu gabe artuko dute errebista ori, eta gañerontzeko baskidetzako zaudeten euskeltzaleari lehaitian baskidetzako agintzen diotet. Badakisute urteen senbat ordaindu behar dan, 3,65 eguneko zentimo bat.

JEL ALDERDIKOAI

Ustelkeriak dene batera laga ta oraintxe biotz baño lehengo zigu, Jel alderdikoai! Ezin egiten, gure burujabetasuna [illegible] gabe.

Eiiz-ototizetan eta bere gorputz obiratzera jende asko nabaitu gennen. Bere sendi onari nere atsekabe beroena damaiotet.

AGURKETAK

Gazteir'tik etorrita emen agurtu ditugu, Intxaurraundeta'tar Luis, apaiz jauna, ta bere arreba Jesusa.

Bere arreba orren eriotza dala ta, etorri dira.

ERKALTZA EDO ERREPUBLIKA

Au dala ta badabil gure artean matxinada erik. Arrikadak, birau eta oiu itsusienak, ez degu besterik nabaitzen.

Euskeldunak ez gera matxinada orren alde, Euzkadi'ko erkaltza edo errepublikaren alde batzik.

ERMU'TIK

¡EUP! ERMU'KO MENDIGOXALE ALDRIA DAN

Emendik urtengo da goxeko zazpi eta erdijetan "Azkatasuna aldria" zar eta gaste neska eta mutil. Zaletasun andija dago datorren ganderako uri onetan mendiko axe ederrak artzeko eta geure dedar andija egiteko.

Onetarako bada eupada aundi bat egiten yake Zaldibar, Durango, Elorrio, Arrasate, Eibar, Zoraluze, Elgeta, Bergara eta inguruetako mendigoixale guztijai. Antxe akar ezagutu eta alkartu bear gara.

Gertu bada danok igandean Kanpazar mendian besarkatu gaitian. Gu lenak gara motauko zara aldi baten nola Auspo laguna izenagaz juaten giñan nai nora, baña zor txarrez etorri yakun Dictadura eta onek lotza barik il ginduzan. Baña emen gaude beti lerden eta kementsu aberrijara ren alde egiteko. Entzun ba guztijok eta bat bere ezdaitela geratu igandean Kanpatzar era eldu barik. Aurrera guztijok ba eta pozik aberrijagaitik zer edo zer egin biar dogu eta. Euzkadi aldi txarrak igaroten dago, pizkortu ba eta zantzo zolija jaurti dagigun mendiz mendi.

MENDIGOXALE BATZORDIA

Orri onetan euzkel iragarkiak ikusten dabezan irakurleak iragarkia ipiñi dabenaren etzean erosi gurako dau, beragaz ulertuteko euzkeraz izpartuten dana ba analetzat eukiko dau

AZKOITIARRAK

ELDU DA EGUNA DANOK BAT EGIN BEARRIAN GERANA; BESTE ERRIAK ORRETARA DIJUAZKIGU

¡Atzotik, batere ezdu indarrik politikak eta alkar ikusi esiñak. "Republica", jarri da Españian eta bere ustarripean geralako, Euzkadin ere bai. ¿Zer egin bear degu? Lenagotik ostutzen, moteltzen, aldendutzen basijoan gure sinismena, gure Jaungoikozaletasuna, ezda emendi aurrera biziago eta indartzuago izango. Politika utzi eta bat egin bear degu. Danok ¿akigu ego-aldetik ez datorkigula gauz onik, geuria geuk egiten ezbadegu galduak gerala, batezere gure umiak, gure ondorengo errukarriak; geuria geuk egiten ezbadegu, gure ondorenguak ezdute ezagutuko edo beñepein maitatuko Jaungoikorik.

"Republika" berez ez da txarra, gure aurrekoak "republicanoak" ziran baña elizkoiak, Jaungoikozaleak; guk ere orrela biar degu; Jaungoikozaleak, bañan baita ere beren antzera euzkalerri zaleak; ezkatu bear ditugu, legez geuriak diran eskero, geurentzat Euzkadiko eskubideak, ori iristen badegu itxaropena badegu.

Ori galtzen edo iriztera zaiatzen ezbagera, euzkaldun izatea eta sinismena batere ezditugu maite.

Danok bat egin bear degu, danok gera oraindik Jaungoikozaleak, izangaitezen' Euzkalerri zaleak, Euzkadi maitatzen ikazten ezbadegu egoaldeko ur-bolara likitzak menderatuko gaitu; euzkotar eta euzkaldun guztiak bat egiten bacegu sinismenak iraungo du.

Maite ditzagun bada, danok alkar artuta, Jaungoikoa eta Euzkadi edo ta maite dezagun Euzkadi Jaungoikoarentzat. Integruak. ¿Fueristak zerate? Orain da garaia iristeko.

Karlostarrak ¿Euzkalerria maite dezute? Asaldu orain maitasun ori.

Euzkotarrak ¿Euzkadiren eskubideak nai dituzute? Oraintxe, beñere bazerate.

Euzkaldun danok izan bear degu *euzkaldun onak bakarrik.*

Geuk zaintzen ezbadegu Euzkalerria ¿nork zaindukodu?

Lenago geuk egiten ginduzen geretzako legiak ¿orain zergatik ez?

¿Nork maite du gien Euzkalerria?

Jaungoikoa eta Lege Zarra nai dituanak.

¿Nor asaltzen da bedi bulartzu bakar bakarik, gorri, beltz, Jaungoiko eta Euzkalerriaren arerioen aurka? Euzkotarra.

Euzko Abertzale Alderdiak.

OLERKI-SAILA

UNE GOXUA

Zelai orlegiko gentz-ziar emaro
odeixka zurijen itzala digaro.
Olan eltzen yaku erijotz antzija;
¡Gozartu dagigun larrosen eztija!
Odeixka itzal ori baxen samurkiro
lora-ziar bebil geuria geldiro.
Laztandu dagidan ekarzu eskuba:
lora artian kutun ezyatzu mosuba?
Neure espanai zagoz eta barre egixu.
Bijar maitatuko garan eztakixu...
Unia gozartu, ilkorrak ba gara,
axe egatan dabil loren mosu-ikara.
Odeixka itzal ori dabil zelayetan:
—Zorijon aldijak zeben bijotzetan
ezilkortu, arren—, dirauskube zarrak.
¡Bai zera! ¡laztandu daiguzan larrosak!

Aguardientes LICORES FINOS :: JARABES ::
ACEITES FINOS DE OLIVA
José de Galarza y Uraldo
SOBRINO DE E. DE URALDE
Fábrica, almacenes y oficinas: Castaños, 34. Teléfono 11.783. Despacho: Carnicería Vieja, 21.

EGUNEKUA

EUZKADI'TIK

EUZKADI BURU BATZAR

Donostia'ko Valle Lertzundi deritxonoak uar bat argitaldu eben lengo egunean "El Pueblo Vasco"n eta euzkotar guztijai ots egiten eutsoen Abertzale Jeltzale alderdijan alde itxateko, Baña tamalez del ori ezta abertzale batek egin biar dabena. Españian errege jauna atzera ipinteko geugan gogortu gura dabe. Ez, ezin jasan geinke olakorik, beti euki cogu edesti gargija, beti bide batetik ibilli gara, baña Euzkadi Buru batzarrak erantzun dautsona ipiñi gura dot ementxe. Ona zer diñuan:

Euzkadi Buru Batzar ak diño ezta-bezala ulertuten'ale ren itzak, ezta jaun orrek zelan ulertuten daben Laterri eta Abarri itzak. Españiatar bakalduntarren gogayak itxi barik ezin sartu daiteke iñor geure alderdijan, eta lenago ondo astertuko dira bakoitzaren bidiak eta ekiñak.

Euzkadi eta abertzaleen edestijaren ixenean baztertuten doguz Valle jaunak diñuazan gauzak, geure alderdi au ezta ba bakaldunatarrak bildurtuten diranen orduban alde ixateko, bakarrik guaz ba Euzko Aberrijaren azkatasuna lortzen. Gure artian ezta besterik sartuko, edozelako elburubak jadetsiteko ustez. Valle ri erantzun dautso Gipuzkoa Buru Batzarrak bere, lenen Españia ko errepublikea ontzat arturik, Euzkadi ren leyen aurka ezpada jartzen. Geure alderdiu au zabalik daguala daran tzutso, baña orretarako osuan artu biarko dabe Jel ikurrean zainduten doguana. Euzkel Alderdi jeltzaliak eztau ontzat artuko euzko aberrija ezeze beste gogai batzuk erain gura dabiezanak.

Valle jaunak uste dau Jeltzaliak antziñako geure asabak legetxe gudara juango garala Karla edo beste bakaldun bategaitik. Orcuko gertaerak begijak argitu eta zabaldu dauskuzez eta gauko egunean ezgara bestean arazuakatik juango, geureakaitik baño. Aberrija ezagutu doguban ezkero, ezin egon gaitikez iñoren arazoai. Euzko abendak bere lurraldia ta bere aberrija jortu gura dauz ez iñoren bakaulkijak jabon. Bakaduntarrak areriojo ixan yakuz beti, amorruz geure kidiak menpeturik eta zapaldurik, gaur ezin eurek askatu daike ezer bere. Osuan ontzat artu begija geure ikurriña eta betoz.

GOBERNDORE BARRIJAK

Bizkai'ko gobernadore autu ixan dabe Martinez de Aragon deritxon gazteiztar jauna eta Gipuzkoa kua ostera Aldasoro jauna. "Euskaltzaleak" ko bigarren lenbakarija, oso euzkera zalia eta euzko oiruak maite dabezana. Pozik agur egiten dautsogu Aldasoro jaunari ta bere aulkijan gauzarik onenak egin dagijazala euzko erijaren alde eskatuten dautsogu.

UDALETXIAK

Udaletxiak ankaz gora dabiltz toki askotan, bateko errepublikanuak eurak nagusi dirala, besteko auteskundietan zenbakirik geyenax atara ebenak dirala. Gobernadoriak errepublikanuai emongo ei dautsez eskubiderik andijenak baña ikusiko dogu zelako saratak eta matxinadak sortuko diran erri onetan. Lenen errijau bere tokijan itxi dagijela, berak autu ebezanak nagusi dirala.

"LA GACETA DEL NORTE"

Atzoko zenbakijan izparringi onek abertzale eran itz egin eban, Euzkadi ren lagijen alde, geure antziñako oiturak eta azkatasunak lortu biar doguzala-ta. Eztago txaro ori, baña belutxu ez ete diñoz olako gauzak? Len nun egon da beti euzko gauzak eta abertzaleak alboz albo itxiteko? Orain arin abertzale usaiña darijoen orreik eztakigu zer egingo daben, abertzaletasuna egun bateko nabaritasuna barik, urtez urte bijotzean sortuarazo dan landara mardula dalako. Bijotzean sartuta, josita eztaruanak eztau egun batean sentidijko, buruko ta bijotzeko gauzea ca ba.

KATALUNYA'KO ERREPUBLIKEA

"La Publicitat" izparringijak onela agur egin dautso Catalunyako errepublika barrijari: Macia ren abotsak pizkortu dau Catalunya ko errepublikea eta errijak bere eskubide osua emon dautso orretarako. Benarj egon yako lau alde etara abots au zabaldutea, borondate oneko gixonak batu daitezan. Bere ixena ezin aldendu ixango da Catalunya ientzat eta Españiarentzat egunik alayena dan onen ondotik. "Onela darrai izparringijak eta agurrik berutena egiten dautso errepublika barrijari, guztijen onerako ixan daitean.

DOIPURUBA ETA ERREPUBLIKEA

Batikano'ko inguruan ezta bildurrez begiratuten Españia'ko aldakuntza au, Doipurubari ezyagoko ba au ixan edo ori ixan alean daguana. Berari zintzotsuna eta uskurtza jaboten dauzan gobernuba ona yako. Uzkurtza gauzak zaindutia gura dau eta gobernu barri onek abintza andijak egin dautsoz.

ERREGIA ZANA

Españia'ko erregia zanak uar batzuk argitaldu dauz, berak eztabela bakaulkija baztertuten azaldurik. Errijak orain bera aldendutia gura daben ezkero nai ori betetu gura dau, baña beragan gordeko dauz bakaulkira atzera etorte ko eskubidiak. Anai arteko gudarik ixan eztaiten aldenduten dala diño, baña berak Aberrijaren onagaitik bakarrik alde dagijela diño. Aldun batzarrak batzean ikusiko da nortzuk diran nagusi eta errijak zer gura daben.

ATZERRIKO IZPARRINGIJAK

Aterri guztijetako izparringijak idatziten dabe Españian jazo danetzaz eta goralduten dabe Alponsa bakaldunaren egiña. Zalduma dala diñoe au egin dabelako, baña antzeko izparringijak batez bere eztautse errepublika barri orreri aurrerakuntza andirik emoten, alde guztijetatik arerijoak daukozalako. Iraun dagijen txindi arazuak eta bestetik erkijetakuak arrizku andijan ipiñiko dabe laterri osua.

TRADIZIONALISTAK

Donostian batu dira tradicionalista deritxoen batzuk eta aldi onetan aberrijak igaroten dabezan arrizkubetatik ondo urtetako zin egiten dabe euren erregia zanaren alde lan egiteko. Euzko on guztijai lagun egiten yakez eta furubak jadetsiteko euren laguntza opalduten dabe. Laster agiri bat argitalduko dabe zer egin biar daben auren lagunak azaldurik. Lau erkijetakuak ixenpetuten dabe uar ori.

JELTZALE

Pilloka datorz Jeltzale alderdira yentiak. Iñoiz euzko usaiñik bere euki ezdabenak zayatuten dira alderdikidetuteko. Zer gertauko da ¿Buru yakuzanak begi argiz dagoz nortzuk diran orreik ikusteko, bada ezpadau edozeiñeri ezin itxi ixango yako ba alderdikua ixaten. Gitxik zarri geyago egiten dabe, askok ota edozelakuak baño.

EL DIA EN BILBAO

Hoy se constituirá en Comisiones el Ayuntamiento de la villa.-Sigue sin constituirse la Diputación.-La iniciativa de un guardia municipal.-Retirando atributos monárquicos.-Otras noticias

De la Diputación

El marqués de Villafranca acudió ayer mañana a su despacho, y también lo hicieron otros varios diputados, firmando algunos acuerdos de días anteriores.

En esta interinidad no se tomarán acuerdos de ninguna clase, aunque, según las referencias que tenemos, ha sido preciso aplicar el decreto a un asunto, exclusión de dos o tres dementes en Santa Agueda, porque se trataba de un caso de verdadera urgencia.

¿En qué forma se constituirá nuestra Corporación? Todavía no es posible sentar una afirmación concreta. Desde luego, se hará de manera distinta a las de régimen común, y aunque ha de tener carácter provisional, es muy posible que la constitución fije las normas que se han de seguir.

En las tertulias políticas se trataba de esta cuestión tan importante, y aseguraban algunos que presumen de bien informados que la constitución se hará por libre designación de los Ayuntamientos de la provincia, estableciendo la proporcionalidad para los efectos del voto con arreglo a la densidad de electores o vecinos.

De todas formas, y sea cual fuere la resolución que se adopte, es casi seguro que hasta el lunes o martes de la próxima semana no quedará constituida la nueva Corporación.

Del Ayuntamiento

Durante la mañana recibió el alcalde, señor Erkoreka, numerosas visitas, entre ellas las de los señores siguientes:

Señor Buisán, alcalde y varios concejales de los Ayuntamientos de Portugalete y Santurce, una Comisión de los obreros en huelga de las obras de la calle de las Cortes, señor Camarón, señor Domínguez, de Instrucción Pública; don Francisco Pereg, de la Cooperativa Eléctrica; don Ignacio Cordena, sobre fianza en depósito; don Santiago Santos, sobre una consulta; doña Josefina Rojas, señor inspector de Primera Enseñanza, señor director de la Caja de Ahorros Municipal.

Dijo el alcalde que, aparte de las visitas relatadas, la mañana se había deslizado sin nada de particular.

Dijo que hoy se constituiría el Ayuntamiento, a cuyo efecto se celebraría sesión a las diez de la mañana.

En ella, aparte de la constitución y entrega de varas a los señores tenientes de alcalde, se trataría sobre la organización de festejos con que este año ha de solemnizarse el Dos de Mayo.

Para una sesión próxima se reserva la labor de acoplar a los señores concejales en las distintas Comisiones.

Don Mario Areizaga estuvo en la Alcaldía, comunicando al señor Erkoreka que había quedado excluida del programa de agasajos a los futbolistas italianos la recepción oficial que se anunciaba para hoy en el Ayuntamiento, quedando reducido el acto a un recibimiento meramente formulario.

Ha sido descubierta la gran alfombra del vestíbulo del Ayuntamiento, fabricada por la Real Tapicería, con el fin de ver la manera de suprimir de ella la corona que ostenta como remate del escudo.

Fué llamado al despacho del alcalde un guardia municipal que sustituyó la corona que remata la chapa de su casco por un gorro frigio esmaltado.

Aunque no nos dieron cuenta de lo que el señor Erkoreka dijese al expresado guardia, tenemos la impresión de que le aconsejó se atenga a las órdenes que reciba, sin proceder por su cuenta en los asuntos del servicio.

Por motivos de delicadeza, el secretario especial de la Alcaldía, don Benjamín Jubindo, que venía desempeñando dicho cargo desde la actuación del señor Moyúa, presentó al señor Erkoreka la dimisión de dicho cargo.

El señor Jubindo pasa al Negociado de Plus Valía, que es de donde procede.

Convocatoria

Hoy se reunirá el Ayuntamiento republicano de la villa.

El señor Erkoreka ha cursado unas convocatorias, en las que dice que, en cumplimiento de órdenes dictadas por el Gobierno de la República para la constitución de los Ayuntamientos, que ha de llevarse a cabo acatando el resultado del sufragio del día 12 de los corrientes y conforme a la ley municipal de 1877, salvo los casos de protesta por coacciones o falsedades en la elección, que no se dan con respecto a los concejales de este Ayuntamiento, dispone la convocatoria del mismo a sesión que tendrá lugar el día de mañana, 18 del actual, a las diez horas del mismo, a fin de proceder a la elección de alcalde, tenientes de alcalde y procuradores síndicos, que se verificará conforme a lo determinado en los artículos 54 y siguientes de la ley de 2 de octubre de 1877 y señalamiento de los días y horas en que ha de celebrar sus sesiones ordinarias el Ayuntamiento. Así bien, habrá de tratarse y acordarse en dicha sesión lo que estime conveniente con respecto a la celebración de las fiestas del 1 y 2 de mayo del corriente año; y circúlense las oportunas convocatorias a los señores concejales por el secretario de la Corporación.

VIDA RELIGIOSA

Sábado, 18 de abril de 1931

IGLESIA DE MARIA REPARADORA

Solemne triduo en honor de su excelsa Patrona María Reparadora, los días 30 de abril y 1 y 2 de mayo, a las seis de la tarde, predicado por el R. P. Bonifacio Bilbao S. J.

IGLESIA DE SAN JOSE

(PP. Agustinos)

Solemne novenario en honor de San José para honrar su patrocinio, del 18 al 26 de abril, fiesta del Patrocinio de San José.

De los sermones de esta novena está encargado el notable orador sagrado muy ilustre señor doctor don Santiago Guallar, canónigo archivero de la S. I. C. del Pilar, de Zaragoza.

Los cultos durante la novena serán:

Por la mañana.—En las misas de seis y media, ocho y nueve, se rezarán las preces de la novena y habrá comuniones generales de los distintos coros de la Asociación. En la de seis y media se rezará el santo rosario y en la de nueve se cantarán preciosos motetes al Santísimo y el himno a San José de la Montaña.

El día 26 de abril, fiesta del titular de la Asociación, la misa de las diez será cantada, y por la tarde, al terminar los cultos, se organizará una procesión con la imagen del santo.

Por la tarde.—A las seis y media, exposición, rosario, preces de la novena, sermón y bendición con el Santísimo, terminando estos cultos dándose a besar una preciosa reliquia, consistente en un trocito del manto que cubrió en vida el cuerpo bendito del excelso Patriarca.

El día 27 de abril se celebrarán en la misma iglesia de PP. Agustinos, a las diez de la mañana, solemnes honras fúnebres por los difuntos de la Asociación y por los de las personas que han contribuido con sus limosnas a estos cultos.

IGLESIA DE LA ENCARNACION

(PP. Dominicos)

Días 17, 18 y 19 de abril.—Triduo mensual que la Asociación de San José consagra a su Santo Patriarca.

Por la mañana habrá misa de comunión, a las seis y media y a las ocho y media. Después de esta misa se hará el ejercicio del triduo.

Por la tarde, a las siete el viernes y sábado y a las tres y media el domingo, tendrá lugar el rezo del santo rosario, ejercicio del triduo y cánticos por el coro de religiosas en honor del glorioso Patriarca.

Están concedidos cincuenta días de indulgencia por asistir a este triduo.

ADORACION NOCTURNA

(Sección de Deusto)

Turno III.—Cristo Rey

Sábado, 25.—En el convento de los reverendos Padres Pasionistas.—Por el alma de doña Cleta de Agirre (q. e. p. d.).

Estas vigilias darán principio a las nueve y media de la noche.

Turno San Tarsicio

En la capilla del Colegio de los Hermanos de las Escuelas Cristianas, el sábado, 18, a las dos de la tarde, y el domingo, 19, a las ocho de la mañana.

(Sección de Begoña)

Sábado, 25.—Turno IV. B. María Micaela de Begoña.

Martes, 28.—Turno V. San José. Intención de doña Rosario Zubiria.

JUVENTUD PARROQUIAL DE SAN FRANCISCO

Ponemos en conocimiento de todos los asociados, que en nuestros locales, durante los días 21 y 24 del corriente (Dios mediante), y a las ocho de la noche, tendrán lugar unas conferencias interesantísimas, como continuación a las celebradas anteriormente por persona tan conocida y apreciada por nosotros como el doctor don Julián de Landazabal, presbítero.

Encarecemos por lo tanto la asistencia a los mencionados actos, ya que por lo interesante y amenísimo de las conferencias a desarrollar y por la simpatía que siempre despliega el conferenciante han de cautivar la atención de todos cuantos tengan a bien asistir.

◆ ◆ ◆

Nos permitimos recordar a nuestros lectores que hoy, sábado, es el día designado para la participación de esta Juventud en la procesión que, con motivo del cumplimiento pascual de los enfermos, se ha de formar en nuestra parroquia a las siete de la mañana.

Como es obligatoria la asistencia, encarecemos por este medio su cumplimiento, esperando que han de acudir todos los que les permitan sus ocupaciones.—*La Directiva.*

NAVEGACION

Movimiento del puerto

Entradas: Vapor holandés "Thesseus", de Pasajes, con carga general; ídem español "Plus Ultra", de Gijón, con carga general; ídem ídem "Cabo Carboeiro", de Pasajes, con carga general; ídem ídem "Piquera", de Gijón, con carbón; ídem ídem "Marqués de Urkixo", de Pravia, con carbón; ídem ídem "Llodio", de Gijón, con carbón;; ídem inglés "Blackhill", de Santander, en lastre; ídem español "Aizkorri-Mendi", de Santander con carga general; ídem alemán "Laneck", de Pasajes, con carga general; ídem noruego "Lyngstad", de Londres, con chatarra.

Salidas: Vapor español "Cabo San Vicente", a Santander, con carga general; ídem ídem "Manu", a Cardiff, con mineral; ídem ídem "Banderas", a Cardiff, con mineral; ídem noruego "Andora", a Newport, con mineral; ídem holandés "Thesseus", a Santander, con carga general.

SITUACION

Viento Noroeste fresquito, mar rizada y horizonte nuboso.

Pleamares para hoy: a las 3,32 y a las 3,46; bajamares: a las 9,47 y 10,1.